

Ingeniaritzarako Oinarrizko Gainazalak



00 Irudia. Bilboko Ingeniaritza Eskolako II.eraikineko eskilara zentralak. Egileen argazkia, 2018.

3. Gainazalen sekzio lauen testa

Argibideak

Jarraian aurkezturiko galderaei, erantzun anitzeko aukeraketa eskeintzen zaio, emaitza zuzena bakarra izanik.

Erantzunak, dokumentu honen bukaeran aurkituko dituzue.

GAINAZALEN SEKZIO LAUEN INGURUKO TESTA

1. Piramide bat plano ebakitzaille batek moztean, eragiketaren ondorioz zein forma geometriko izango du ebakitako gainazal lauak, oro har?
 - a. Bi zuzen
 - b. Poligono itxia
 - c. Zirkunferentzia
 - d. Kurba konikoa
2. Kono bat plano baten bitartez ebakitzearen emaitza gisa, zein forma geometriko ondorioztatzen da, oro har?
 - a. Bi zuzen
 - b. Poligono itxia
 - c. Zirkunferentzia
 - d. Kurba konikoa
3. Esfera bat plano baten bitartez ebakitzearen emaitza gisa, zein forma geometriko ondorioztatzen da, oro har?
 - a. Bi zuzen
 - b. Poligono itxia
 - c. Zirkunferentzia
 - d. Kurba konikoa
4. Piramide bat bere erpinetik igarotzen den plano batek ebakitzean, zein forma geometriko ondorioztatzen da?
 - a. Bi zuzen
 - b. Poligono itxia
 - c. Zirkunferentzia
 - d. Kurba konikoa
5. Kono bat bere erpinetik igarotzen den plano batek ebakitzean, zein forma geometriko ondorioztatzen da?
 - a. Bi zuzen
 - b. Poligono itxia
 - c. Zirkunferentzia
 - d. Kurba konikoa

6. Zilindro bat bere sortzaileekiko paralelo den plano batek ebakitzean, zein forma geometriko ondorioztatzen da?
 - a. Bi zuzen
 - b. Poligono itxia
 - c. Zirkunferentzia
 - d. Kurba konikoa

7. Kono bat bere sortzaile guztiak mozten dituen plano batek ebakitzean, zein forma geometriko ondorioztatzen da, oro har?
 - a. Elipsea
 - b. Parabola
 - c. Hiperbola
 - d. Bi zuzen

8. Kono bat bere sortzaileetako bati paralelo den plano batek ebakitzean, zein forma geometriko ondorioztatzen da, oro har?
 - a. Elipsea
 - b. Parabola
 - c. Hiperbola
 - d. Bi zuzen

9. Bi plano paralelok prisma bat ebakitzean sorturiko sekzioak, euren artean dira:
 - a. Berdinak
 - b. Ezberdinak
 - c. Homotetikoak
 - d. Elkarkideak

10. Zein forma ondorioztatzen da ganbila edo konbexua den zilindro bat, zuzen batek mozten duenean?
 - a. Puntu bat
 - b. Bi puntu
 - c. Zuzen bat
 - d. Bi zuzen

Gainazalen sekzio lauen testaren emaitzak

1b, 2d, 3c, 4a, 5a, 6a, 7a, 8b, 9a, 10b.

